

# 1. ildoak: EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK GETXOTARRENTZAT BALIABIDE EKONOMIKOEN ARABERA

## 1. HARTZAILEAK

Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen duten eta Getxon erroldatuta dauden pertsonak.

## 2. IKASTAROAK

- Diruz lagunduko direnak **oinarri orokor hauetako 3.1. PUNTUAN** jasotakoak dira.
- Ikastaroak, HABEk homologatutako euskaltegietan egin beharko dira. Ikus 2003ko abuztuaren 6ko Kultura Kontseilariaren Agindua; euskaltegien eta autoikasketa zentroyen erregistroari buruzkoa: <https://www.habe.euskadi.eus/euskaltegiak/webhabe00-edukiak/eu/>
- Ezin izango dituzte dirulaguntza hauek jaso, matrikularen kostua ordaintzeko euren enpresen, erakundeen eta abarren dirulaguntza jasotzen duten pertsonak.
- Barnetegien kasuan ez dira egonaldiko gastuak ordainduko.

## 3. BALDINTZAK

### 3.1. Baldintza ekonomikoak

Eskatzailearen diru-sarrera likidoek (zerga oinarri orokorra + aurrezkien zerga-oinarria) ezin izango dute beheko taulan ageri diren kopuruak baino altuagoak izan (IKUS gehieneko diru-sarreraren taula).

### 3.2. Asistentzia

- Aurrez aurreko eta jardun biko ikastaroetan: eskatzaileak, gutxienez, euskaltegiak emandako **ikastordu guztien %75era** joan dela egiaztatu behar du.
- Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan:
  - **mintza-saioetan** izandako asistentzia orduekin, gutxienez, **ikastaroaren ordu teoriko guztien %7,5era iritsi**.
  - **Mintza-saioetan** izandako bertaratzea ordu teorikoen %75a izan behar da gutxienez.

## 4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dirulaguntza eskaera bat egin behar da egindako ikastaro bakoitzeko.

**01.- Euskaltegiko matrikularen ordainagiria.** Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du agiri hau.

**02.- Asistentzia ziurtagiria.** Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

**03 eta 04.- ziurtagiriak.** Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko ditu ziurtagiri hauek.

Getxoko Udalarekin zorrik ez izatea ere konprobatuko du Euskara Zerbitzuak.

**05.- 2023ko errenta gaineko aitorpenaren fotokopia edo egin behar ez izanaren ziurtagiria.** Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du

errentaren gaineko aitorpena.

## **GEHIENEO DIRU-SARRERAK**

Eskatzailearen errenta aitortenean ageri diren diru-sarrera likidoek (zerga-oinarri orokorra + aurrezkien zerga-oinarria) ezin izango dituzte gainditu ondorengo taulan ageri diren kopuruak:

<b>FAMILIAN ZENBAT KIDE</b>	<b>GEHIENEO DIRU-SARRERA LIKIDOAK</b>
<b>1</b>	<b>43.660 €</b>
<b>2</b>	<b>56.340 €</b>
<b>3 edo 3tik gora</b>	<b>62.006 €</b>

Eskatzailearen sarrerak egiaztatzeko **2023ko ekitaldiko errentaren gaineko aitorpena** begiratuko da.

### **OHAR GARRANTZITSUAK**

- Eskatzailearen 2023ko errenta aitortpeneko diru sarrera likidoak begiratuko dira.
- Eskatzaileak errenta gaineko aitorpena egin beharrik ez badu, Udalak ofizioz konprobatuko du edo horretara ukatuko balitz, interesatuak ziurtatu beharko du egiaztagiriaren bitartez.
- Benetako egoera ekonomikoa okerrera aldatu izan balitz egiaztatu beharko da eskabidea egiterakoan.
- Bekak esleitzerakoan, Oinarrizko Errenta jasotzen duten familiak lehenetsiko dira.